

AUZOZ AUZO: SANTA MARINAKO JAIAK

ARKO

Arrasate

P R E S S

2001.eko
uztailaren 13a
49. zenb.

Sentsazio berrien bila



PREZIOAK AURREZ GARBI AITORTUZ GERO EZ DA ERREZATZEN IBILI BEHAR IZATEN.

ORDEZKO PIEZAK	PSP, oinarritzkoa*
AURREKO MOTELGAILUAK	17.708 Pta.
ENBRAGE-KITA	20.200 Pta.
ISILGAILUA	10.300 Pta.
FRENOKO PASTILLAK	7.000 Pta.

PREZIOAK AURREZ JAKITEA EZINEZKO GAUZA IZATEN DA. PIEZAK BAI, "JATORRIZKOAK", BAINA NON SORTUTAKOAK, ZEIN TOKITAN JAIOTAKOAK? ETA BERMEA, BAI NOSKI, BAINA KALE-IZKINARI BUELTA EMAN ARTEKOA BAKARRIK. ZURE NISSAN AUTOA NISSAN EZ DEN TAILER BATERA ERAMATEA BENETAN BELDURGARRIA DA, DARDARKA HASTEKO MODUKOA. IZAN ERE NISSAN-EK BAKARRIK EMATEN DU ERABATEKO GARDENTASUNAREN BERMEA. BETI JATORRIZKOAK DIREN ORDEZKO PIEZAK. 12 HILÁBETEKO BERMEA EDOZEIN KONPONKETA EGIN ONDOREN, ETA ARRETA SEGURUA, AURREZ ORDUA HARTUTA EDO HARTU GABE. BUKATU DA TAILER FIDAGARRIA AURKITZEKO ERREZATZEN IBILI BEHAR IZATEA. NISSAN-EN EDOZEIN KONTZESIONARIO DA FIDAGARRIA. HITZA EMATEN DIZUGU.


SEE THE CHANGE



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Mondragon-Arrasate

urteurrenak



Autobus geltokirako proposamena

■ 72. zenb.
1990eko uztailaren 13an idatzi genuen...

Aldundiak, garraio publikoa arrazionalizatzeke, Arrasaten eskualderako autobus geltokia jartzeko asmoa du, eta hori jakinda, Arrasateko Udalak Aldundiari geltoki zaharra edo Kontzezino ingurua proposatu dizkio. Geltokiaren behin betiko kokagunea Aldundiak erabakiko du hura egiteko. Bestalde, Aldundiaren asmoen arabera, Udalak gestionatu beharko du geltokia.

Udaletxeak berriro zabalik

■ 72. zenb.
1990eko uztailaren 13an idatzi genuen...

Bi urtez obrak egiten jardun ondoren, udaletxe berriua zabaldu dute. Lanak hirurehun milioi kostatu dira, eta udaletxe kanpoaldeak garbitu eta barrualdea erabat berritu dute. Horrela, eraikuntzari argi handiagoa eman eta bulegoak hobeto antolatu dituzte. Gauzak horrela, udaletxeak solairu bat gehiago izango du, lehen erabiltzen ez ziren ganbaretan udal bulegoak egokitu dituzte-eta.

Epeleko errepidea

■ 72. zenb.
1990eko uztailaren 13an idatzi genuen...

Udalak, Maltzaga-Durango errepide berriaren Epeleko aurreproiektua irakurri eta berehala, zenbait aldaketa proposatu dizkio Diputazioari. Epeletik datorren errepidea Arrasate-Bergara bidearekin lotu gura dute, eta, horretarako, Artxubi baserri inguruan bidegurutze handi bat egingo dute. Udalaren ustez, lotura hori ez da beharrezkoa. Errepide biak urtebeteko aldearekin egingo direla jakinda, Udalak proposatu du lehenengo Etxezarretako bidegurutzea egitea.

besteek esana



Goiena egitasmoan konpromisorik hartu ez duten hiru udal gelditzen dira. Oñatin, Bergaran eta Elgetan telebista ez da ikusten, eta bertako herritarrek GOITB ikusteko gogoia dutela esaten digute. Gure kamerak ikusten dituztenean kexatu egiten dira, gero ezin dutelako ikusi. Bestalde, Debagoiena bailarako zentzu handirik ez dago eta gure helburuetako bat zentzu hori zabaltzea da. Lehenengo Arrasate Telebistako ikusle fidelak apur bat haserre daude, Arrasatez gain beste herriek ere badutelako protagonismoa. Baina ikusten da telebistak badituela jarraitzaileak. Lantaldea gero eta profesionalagoa da eta hori produktuan nabari da».

Oihane Agirre

GOIENA TELEBISTAKO

ZUZENDARIA

EUSKALDUNON EGUNKARIA

(2001eko uztailaren 8a)




ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabaria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea:** Arantzazu Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemaketa:** Lorea Aginiano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Oñozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoak kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

aurkibidea

Azaleko argazkia: Oxel Arrieta.

- Lehen begiratua 3
- Asteko hitzorduak 4
- Herritarren berbak 5
- Astearren errepasoa 6
- Inkesta 7
- Orain eta hemen 8/9
- Txutxumutxuak 10/12
- Asteko gaia 14/16
- Auzoz auzo 17
- Kirolak jokoan 18/20
- Kulturaren txokoa 21/23
- Beheko tabernatik 24
- Uhinatan barrena 25
- Foto zaharra 26



Jonathan Perez Katalunian izango da oraingo asteburuan Euskadiko Selekzioarekin.

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualariora 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Delak 112
Gurulze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asleburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

udako ordutegiak

Udal zerbitzuek udako ordutegia izango dute aurrerantzean. Gazte eta Sexologia zerbitzuak 10:00etatik 14:00etara eta, astelehen eta martitzenetan, gainera, 17:00etatik 20:00etara. Udaltzaingoa 10:00etatik 14:00etara izan-

go da zabalik. Kultura etxeak 20:00etara aurreratu du uztaileko itxiera ordua. Musakolako kiroldegia 08:30etik 21:30era arte zabalduko ditu ateak, baina igerilekuak 09:30etik 20:30era izango dira zabalik.

jaiak eta erakusketa

Uztailaren 13tik 15era Santa Marina auzoko jaiak izango dira. Eta jaiak irauten duten artean, Toki Argi erretiratuaren etxean eskulan erakusketa izango da, honako ordute-

giarekin: egubakoitzean 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta domekan baita goizez ere, 12:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere.

elkarriren sinadura batzea

Uztailaren 13an, egubakoitza, Bake Konferentziaren aldeko sinadura batzea egingo

dute Elkarri taldeko kideek. Portaloian izango da, 19:00etatik 20:30era.

alkarturen 25. urteurrena

Alkartu elkarteak 25. urteurrena beteko du uztailaren 16an. Hori dela eta, elkartearen gainean liburua egin dute eta aurkezpena

uztailaren 13an izango da, Ignacio Zuloaga kaleko 6.eko egoitzan, 19:00etan.

arima beltza

Arima Beltza rock&blues taldeak Ferrerias kaleko plazatxoan joko du uztailaren 13an,

23:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, taberna baten izango da emanaldia.

kale antzerkia

Uztailaren 20an, Gaitzerdi antzerki taldeak *Girobira* kale antzezlan eskainiko du. Seber

Altube plazan izango da, 22:30ean.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 13

- Irizar, Erguin

Zapatua, 14

- Amezua, Santa Marina

Domeka, 15

- Zabala, Zarugalde

Astelehena, 16

- Azkoaga, Ferrerias

Martitzena, 17

- Azkoaga, Iturriotz

Eguaztena, 18

- Corcuera, Aranbarri

Eguena, 19

- Zabala, Zarugalde

IRAGARKIA

Udal Plenoak, 2001eko ekainaren 18an egindako bilkuran, besteak beste, ondorengo akordioa hartu zuen:

1. Hasiera batean onartzea "Arrasateko Udalerriko Hiri Antolamenduaren Egitamu Orokorra".
2. Jendaurrean jartzea datorren azaroaren 9arte, aztertua izan dadin eta bidezkoak diren alegazioak aurkeztu daitezzen. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da, herrialdeko hedabiderik haundienetako egunkari batean argitaratu eta Udaletxeko Ediktuen taulan ezarri.
3. Egitamu Orokorra antolatzen duen esparrua Udalerri osoa izanik, oso osorik izendatzea Egitamua ukitutako lurralde-eremu gisa, Hirigintza Planeamenduko Arautegiaren 120 artikulua eta 16/1981 Lege-Dekretuaren 8 artikulua ezarritako baimena-ematearen esekitze eraginetarako.

ALKATEA,
Arrasten, 2001eko ekainaren 27an



ARRASATEKO UDALA

Hirigintza Saila



Herritarren berbak

Aramaixoko ala Arrasateko euskerie?

Txipi Ormaetxea / Irakaslea

Bati baiño gehixagori entzun dutset Aramaixoko eta Arrasateko euskeran artien alde dezente dauela. Ez dakit, ba, zeresan. Neure dudak dauket. Baiñe ez dot esango bardin-bardiñek dienik, seguru badazela diferezentziek.

Gauza jakiñe da (eta harrigarrixe!) Euskal Herrixen, hain txikiñe izenik, euskeraz berba egitteko modu asko dauela. Herri biko oso gertu egon arren, euren artien komunikaziño haundixe egon ez bada, normala da berbetan aldiek egotie. Batzuetan herri bereko auzuen artien be ikusi leike hori. Esate baterako, Aramaixon oso ejemplo garbi-xe dau: Oleta lurrez Aramaixo da, baiñe Oletako euskerie eta Aramaixoko beste auzuetakue diferentiek die. Nik pentsetan dot Arrasateko Zigorrola auzoko euskerie eta Aramaixoko Gantzagakue hurrago dauzela Oleta eta Gantzagakue baiño. Ez dozu hala uste?

Baiñe, zorionez, aldiek ez die alkarri ez entendiduteko bestekuek. Oletako, Gantzagako eta Zigorrolako hiru euskaldun alkartzen badie, ez daue problemarik euki-ko alkar aituteko, aldiek egon arren.

Beste kontu bat da zeñien euskerie hartzen dogun kontuen konparaziñue egitte-

ko. Nik hemen baserri inguruko jente nagusixen berbetie dauket buruen. Eurak die bertako euskerie hobetuen gorde dauenak. Kale inguruen eta gaztiaguen artien, barrikuntza eta aldaketa ugari sartu eta sortu die, baserri inguruen baiño asko be gehixago.

“Kale inguruen eta gaztiaguen artien, barrikuntza eta aldaketa ugari sartu die, baserri inguruen baiño asko be gehixago”

Izen be, kalien eta gaztien artien erderiek eragin haundixe dauko. Eta eragin hori hutse litzake berba batzuetara mugatuko balitz. Ez da berba batzuen kontue, hizkuntzan alde danak (lexikue, fonetikie, sintaxixe...) ikuketan dittu.

Beste alde batetik, gaztiek eskoletan euskeraz ikesten daue, euskera batuen.

Ez dot esango bertako euskerie be guztiz baztertute egon danik eta dauenik eskolan (ahozko komunikaziñuen, gutxienez), baiñe batez be euskera batue da erre-gistro nagusixe. Eta gorago aittetu dittuten barrikuntza eta aldaketetan euskera batuek be bere partie eukiko dau.

Orduen, eta barriro hasierakora etorritte, beti euskeraz bizi izen dien zaharrenen berbetie kontuen hartute, hainbesteko aldie dau Aramaixoko eta Arrasateko euskeran artien?

Ni, apurtxo bat kostaute, bixetako baten eskribiduten saiatu naz. Zeñetan?

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Herri Administrazioan pres-takuntza eta ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: uztailak 27.

• Eusko Jaurlaritzaren esku-tik, kooperatibetan bazkideak sar-tzeko laguntzak. Epea: uztailak 30.

• Eusko Jaurlaritzak bekak emango ditu euskal nekazaritza eta arrantza sektorean teknolo-goak eta ikertzaileak prestatze-ko. Epea: uztailak 31.

■ LANA

• Zestoako Udalak zerbitzu orokorretako arduraduna behar du. Epea: uztailak 16.

• Durangoko Udalerako udal-tzainak eta saxofoi, biolontxelo eta oboe irakasleak behar dira. Epea: uztailak 19.

• Gipuzkoako Foru Aldundiak 261 lanpostu betetzeko deialdia egin du. Epea: uztailak 24.

• La Puebla de Labarkako Assa ikastolarako, Filosofia eta Letretan lizentziaduna behar da.

• Arrasateko Udalak enplegu publikoaren eskaintza egin du: euskaltegiko irakaslea, osasun laguntzaile tekniko, liburuzain laguntzailea, sei udaltzain, admin-istrari laguntzailea eta kirolde-giko mantentze-lanetarako ofi-ziala. Epea: EAOn argitaratu zain.

• Eguaztenero jasotzen dugu asteburuan hainbat egunkaritan azaldu diren lanpostu iragarkien bilduma. Interesik izanez gero, pasa zaitez bulegotik.

■ LEHIAKETAK

• Portugalete Uri Urena ipuin lehiaketa. 16-30 urte arteko gaz-teendako; euskaraz edo gaztela-niaz; gaia librea; luzera 6-15 orrialdekoa. Epea: irailak 21.

• Bilboko Udalak Emakume-ak kontari narrazio lehiaketa anto-latu du. Euskaraz edo gaztelaniaz; gaia librea; luzera 5-12 orrialde-koa. Epea: irailak 28.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

943 77 00 65



USTEAK USTE

Elkarteei esker

Azken egunotan komunikabideetan sarri agertu zaigu Andrea elkartearen eta Nafarroako gobernuaren arteko ika-mika. Irakurle askok jakingo duzue, Andrea elkarteak biharamuneko pilula San Fermin jaietan kalean doan banatzeko asmoa aditzera eman zuen. Nafarroako gobernuak, ordea, pilula hori banatzea galarazi die. Botikak banatzeko leku baimenduak daudela eta elkartekoek inolako baimenik ez dutela argudiatu dute. Andrea elkartekoek, ordea, ez diote Nafarroako gobernuari jaramonik egin, halako produktua eskuragai egoteko premia handia ikusten dute eta. Halako jaietan eman daitezkeen ustekabe zein ezbeharraren ondorioz, hainbat emakume haurdun geratzeko arriskuan egongo dira eta halako pilula eskuragai jartzeak arazo batzuk ekiditu ahal izango ditu, zalantza barik. Andreak aurrera egin du ekimenarekin, debekatu egin dioten arren. Beste behin, gobernuak ez dute emakumeen eskubiderik bermatu gura eta Andrea, kasu honetan, gobernuari aurre egin dio.

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ San Kristobal zaindu

Azken egunotan, San Kristobal ondoko mendian izandako suteek sortutako txingarrak guztiz itzaltzeko lanean ari da udala. Ekainaren 22an piztu zen lehenengo sua eta ordutik hona bost sute piztu dira leku berean; adarrak, belarrak, egurrak eta zaborra daude han eta hai-zearen eraginez sua berriro piztu zen. Eta hori berriro ez gertatzeko, udalak hondeatzeko makinekin lursail horretako lurra harrotu eta ura bota du. Hurrengo, lur begetala botako dute eta hesolak ipiniko dituzte inguru hura ixteko. Helburua da jendeak lursaila errespetatzea eta zaborrik ez botatzea. Lan horretarako 300.000 pezeta ematea aurrez ikusi du udalak.

■ Goikobalu Zumarragan

Joan den domekan, Goikobalu abesbatza Zumarragan izan zen V. Abesbatzen Lehiaketan. Guztira bost taldek parte hartu zuten, eta bakoitzak lau kantu aurkeztu zituen; tartean, Tomas Garbizuren *Zer dugun ikusi* kantua, horixe zen-eta abesbatza guztiek derrigorrez abestu beharrekoa. Kritikoen esanetan, Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean dagoen abesbatzak ederki asko abestu zuen kantu hori. Horrez gain, Goikobaluko sopranoek lan ederra egin zuten Luis de Vitoriaren *O Magnum Mysterium* abestian, eta kritikak gaineratu du ahots baxuek ondo baino hobeto abestu zutela. Edozelan ere, lehiaketako

maila oso altua izan zen, eta azkenean Madrilgo Carlos III.a abesbatzak eraman zuen lehiaketako sari bakarra.

■ Gidarien eguna

Martitzenean, San Kristobal Eguna ospatu zen, gidarien patroia eguna, alegia. Eta askok loreak ipini zituzten zaindaria omentzeko. Batez ere, kamioiak bedeinkatu ohi dira egun horretan, baina lan eguna zenez, aurren zapatuan egin zuten ospakizuna. Betiko moduan, meza izan zuten lehenengo, San Andresen, eta gero Arruena parkean elkartu ziren kamioiak bedeinkatzeko, hamar bat. Jose Angel Agirre apaizak bedeinkatu ondoren, bazkaria egin zuten guztiek.

■ Fagor, Eskoriatzan

Fagor Automatiak lantokia irekiko du Eskoriatzan. Datorren urtean zabaltzeko asmoa dute, eta kaptazio negozioko 115 langilek lan egingo dute. Fagor Automatiak lau negozio ditu: konputarizatutako kontrol numerikoak, bimalizadoreak, motorren konponketa eta kaptazioa; eta, hain justu, azken hori eramango dute Eskoriatzara. Kontua da Mondragoeko egoitza txiki geratu eta beste bat behar dutela.

Eskoriatzako industria-eremu berrian eraikiko dute lantokia, Ederlanen parean gutxi gorabehera, eta LKS Ingeniaritzak egingo ditu lanak. Guztira hiru mila milioi



pezeta inbertituko dituzte. 5.000 metro koadro zabal izango da.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

Monte
taberna
Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

Zer deitxazu Sanfermiñeri?

Iruñeko jaixek oso ezagunek die eta jente pillue jueten da urtero



**Kerman Azkarraga
(Langillie)**

Gatxena haraiño juetie da, nahiko urrin dagoelako, baiñe erakargarrixe da. Euskal Herriko hiriburue da eta oso giro politte egoten da.



**Mari Karmen Aguado
(Etxekoandrie)**

Sanfermiñek ez naue erakarten. Hangué jai haundixegixe da neuretako. Gaztiendako aproposague ikusten dot, eurek disfrutauko daue gehixen.



**Ander Ugalde
(Langillie)**

Bi bider juen naz eta oso ondo pasau dot. Girue gustetan jat, toki askotako jentie egoten da... Eguraldi ona egitten badau, iguel animauko gare.



**Edurne Magunazelaia
(Jubilaue)**

Urte baten egon nitzen eta ondo pasau neuén. Gaur egun dagoen girue gaztiaguendako da. Zezenak ez jat gustetan, baiñe girue politte da.



**Eulogia Murillo
(Etxekoandrie)**

Ez naz juen biher. Aspal-di egon nitzen. Hobiéna zezenak eta enzierruek die. Iguel beste baten be juengo naz.



**Javier Garaioa
(Langillie)**

Juengo naz. Urtero jueten naz, hangué nazelako. Gehixen gustetan jatena goixeko ekitaldixek die: enzierruek, erraldoi eta kilixek..



**Josu Roteta Aranburu
(Langillie)**

Ezin izengo gare juen, ume txixixe daukogu-eta. Ez naz sekula egon, baiñe neure kuadrillakuek urtero jueten die eta esaten dauenez egundokue da. Giro politte egoten da, toki askotako jentie...




**Ainara Esteban
(Ikaslie)**

Aurten ez naz juengo. Telebisiñuen ikusten dittut enzierruek eta asko gustetan jat. Espero dot gerora juetie.

ANCEPE

homologatutako diploma



DAMKAR'T

ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA ESKOLA

Irakaskuntza kalitatea

Lanaren ateaq zabaltzen dizkizugu

EIBAR Tel.: 943 12 15 18 / 943 12 71 52

Matrikula epea zabalik



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak


Otarteko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Aisialdirako merkataritza-gunea izango da Zabaleta

Zabaletako inguru osoa merkataritzarako izatea aurrez ikusi du udalak. Halaxe jaso du, behinik behin, Egitamu Orokorrak. Gaur egun, kontsumorako ohitura berriak zabaltzen ari direnez, aisialdirako merkataritza zentroak dezente ugartu dira. Hori dela eta, Zabaletako inguru eskualde osorako merkataritza-gune egokia izango dela uste du udalak.

30.718 m2 erabiltzeko asmoa du: 28.000 azalera handiko merkataritza jarduerarako eta beste 1.433 m2 hornikuntza lanetarako. Horrekin batera, 1.670 aparkaleku egitea aurrez ikusi du udalak eta oinezkoendako zein txirindulariendako ibilbidea Zabaletaraino luzatu gura du.



INDUSTRIAK KANPORA

Udalaren asmoak betez gero, han dauden lantegiak lekuz aldatu beharko dituzte, Eroski ondotik hasi eta Roneoko errebueltaraino.

Edozelan ere, alderdi politiko guztiak ez daude ados proposamen horrekin. Zaba-

leta inguru merkataritzarako bakar-bakarrik izan beharrean, beste erabilera batzuetarako ere izan beharko litzaitekeela uste dute EAJK, EBk eta EAK. Hortaz, oraindik ere badute zer eztabaidatu eta zer erabaki gai horren gainean.

Monteko porrak markak hautsi

Sekula baino jende gehiagok eman du izena Monte tabernako Tourreko porran: 530 lagunek, hain justu. Bost mila pezeta ordaindu eta 15 txirindulari aukeratu ditu partaide bakoitzak; hortik aurrera, lasterketa adi-adi jarraitzea eta zortea izatea baino ez dago. Hori bai, zein baino zein urduiago ibiliko da; izan ere, porrako irabazleak sari eder eta eramango du etxera: batutako diruaren %40, hain zuzen ere; bigarren geratzen denak %25 eskuratuko du, hirugarrenak %12'5 eta laugarrenetik hamargarrenera geratzen direnak, %2'5. Eta, orain arteko porrarik jendetsuena izanda, orain arteko porrarik dirutsuena ere bada, guztira, 2.650.000 pezeta batu dituzte-eta. Gauzak horrela, lehenengoak 1.060.000 pezeta eskuratuko ditu, bigarrenak 662.500, hirugarrenak 331.250 eta laugarrenetik hamargarrena bitartean geratzen direnek, 66.250 pezeta.


Herriko ibaiak garbitu eta txukunduko dituzte

Aramaio eta Deba ibaien ubideak hondatuta daudela-eta, apur bat txukuntzeko zenbait lan egitea erabaki du udalak. Adibidez, Deba ibaiaren kasuan, Cerrajera inguruan estalita dago eta ahal den neurrian estalkia kendu eta ibaia lur azalerratu dute; gauza bera egingo dute Aramaio ibaiarekin Otorra Lizentzia-

duna kalean.

Horrekin batera, bai batean zein bestean, erreka bazterrak berreskuratu gura dituzte eta presa txikiak eraiki. Horrela, ur gutxi dagoenean, arrainak bizi ahal izateko ur nahikoa lortuko dute. Jakina, gaur egun ez dago arrainik, baina etorkizunean berriro ere gotea espero dute.

Ubideak zaintzeaz gain, erretako ura bera zaindu gura du udalak. Horretarako, Aramaio zein Deba ibaietako ur zikin guztiak batu eta Epelen erai-kiko duten araztegiak garbitu gura dituzte. Deba ibaiko ur zikinak batzeko kolektorea laster bukatuko dute; eta Aramaio ibaiko ur zikinak batzeko egitasmoa idazten ari dira.



Hilbera
kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

HIES
BERRI
Tel.: 943 79 26 99


PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Kontuz etxebizitzetan udako lapurretekin!

Uda partean etxebizitzetan lapurretak areagotu egiten direla-eta, Herrizaingo Sailak kontuz ibiltzeko abisatu du, baita zenbait aholku eman ere. Adierazi du lapurretak arratsaldean izaten direla, eta ez bakarrik oporretan dagoen jendearen etxebizitzetan; izan ere, egunero ordu jakinetan hutsik dauden etxeetan ere egiten dute lapurretan. Berezi, dirua eta bitxiak eramaten dituzte, baina baita aparailu elektronikoak zein jantzi garestiak ere. Eta ate nagusitik sartu ohi dira, erremintekin edo plastikozko txartelekin atea zabalduta. Hala ere, zenbaitetan etxearen aurrealdea konpontzeko ipinita duden aldamiu edo antzekoak erabili izan dituzte etxeetara



sartzeko. Era berean, eta orain arte ez bezala, apurtxo bat aldentuta dauden etxebizitzetan (nekazaritza-guneetan) sartzen hasi dira lapurrak.

AHOLKUAK

Horren aurrean, Ertzaintzak hainbat gomendio egin ditu:

- Atea giltzarekin itxi beti, nahiz eta denbora laburrerako irten. Itxi ezean, plastikozko txartel huts batekin zabal daiteke atea.
- Etxearen aurrealdean lanak egiten ari badira, ondo itxi leiho eta ate guztiak. Eta ez gorde etxe barruan balio han-

diko ezer.

- Norberaren giltzarrian edo giltzetan ez ipini etxeko helbidea.
- Oporretara joanez gero edo etxea denbora luzez utzi behar bada, komeni da norbaitek noizean behin gutunak batu eta leihoak zabaldu eta itxia.
- Etxetik denbora laburrerarako joanez gero, komeni da argiren bat, irratia edo antzeko zerbait piztuta uztea.
- Etxera heldu eta atea zabalik badago, ez sartu barrura, SOS Deiak-en zenbakira deitu, 112 zenbakira, alegia.
- Lapurrekin topo eginez gero, ez aurre egin, utzi joaten; baina, hori bai, euren ezaugarriak ondo ikusi eta buruan hartu, gero polizia-ri esateko.

UCEMeko langileek greba amaitu dute

Astebetetz greban izan eta gero, astelehenean akordioa egin zuten UCEMeko langileek eta patronalak. Gauzak horrela, aurtengo lan hitzarmena onartu eta sinatu egin dute.

Lau puntu nabarmen daitezke hitzarmenean: batetik, lanaldiak lau ordu gutxiago izango ditu; baja hartzerakoan baldintza hobek izango dituzte: soldataren %60 kobratzea lehenengo hiru egunetan eta %75 ondorengoetan. Hori bai, horrekin batera sinatu



dute urteko bajek ezin dutela %2'85eko kopurua gainditi. Hori gertatuko balitz, ez lituzkete lehenengo hiru egunak

kobratuko. Horrez gain, soldata %5 igotzea lortu dute, baita aldi baterako langileen kontratuak luzeagoak izatea ere.

Bake Konferentzia

Gaur, egubakoitza, Elkarri taldeak Bake Konferentziaren aldeko sinadura batzea egingo du Portaloian. Arratsaldeko 19:00etatik 20:30era izango da. Eta, ekanean moduan, sinadurarekin batera 1.000 pezeta eskatuko dituzte. Helburua da urrian egingo duten Bake Konferentziarako ahalik eta atxikimendu eta dirulaguntza gehien lortzea.

Antolatzaileek adierazi digute ekanean egin zen diru batzea arrakastatsua izan zela.

PUB HAIZEA



ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65



UDAKO "LOOK" BERRIA

Gaztetxea apaintzen ari dira joan den aspaldian hango erabiltzaileak. Egin duten azkeneko lana honakoa izan da: leihoen markoak kolore alaiz margotzea, hain zuzen ere. Horrela jarraituz gero, gaztetxea jau-regi bihurtuko dute!

KALIAN GORA, KALIAN BEHERA ZEZENA...

... eta umeak, joan den astelehenean egindako San Ferminetako entzierroan. Berdin zitzaien Arrasate Iruñea ez izatea, zezena bizikletaz joatea edo zezenplazarik ez egotea: guztiok -zezena barne- primeran pasatu zuten.



LAGUNA OPORRETAN, POSTALA... BATEK DAKI NON!

Pentsa ezazue zelako musua ipiniko zuen Karmele Iparragirrek lagun Mariatxenek Vienatik bidalitako postala jaso zuenean, joan den astean. Izan ere, Mariatxek orain hiru urte izan zen Vienan. Bera, behintzat, ondo bueltatu zen; berak bidalitako postala, ez hain ondo. Auskalo non igarodituen hiru urte hauek! Gutuna ere oportetan?

POTTOKIAK IRRATIAN

Eskola-umeak oporretan daude honezkero. Opor luzeak dituzte, eta ez aspertzeko, Txatxilipurdiren udalekuetan parte hartzen ari dira hainbat eta hainbat neska-mutiko. Lehengo egunean irratian izan ziren, pasarte batzuk kontatzeko eta pottokien abestia kantatzeko. Ederto jardun zuten!



ONGI ETORRI, ALEX!

Ez da Realak fitxatutako azken aurrelaria, itxuragatik hala ematen duen arren. Txernobildik etorri den ume eta gaztetxoetariko bat da Alex. Bisitan izan genuen Arrasate Irratian. Indarberritzera etorri da geurera, eta hementxe izango dugu uztailean. Ongi etorri!

Loramendi kirolak

Bikiniak Bainujantziak
Prakak

Sudaderak

Kamisetak

BEHERAPENAK!

Bermudak

Zapatilak

Txankletak

Sandaliak

INTERSPORT



'50 URTE BARRU... ZER?'

Ekainean bukatu da Mankomunitateak eta Udalako Ingurugiro Eskolazaborraren arazoa aztertzeko egin duten kanpaina. Hainbat ekintzaren artean, *50 urte barru... zer?* izeneko horma-irudi lehiaketa egin dute parte hartzaileek. San Andres herri eskolako 5. mailakoek irabazi dute, eta San Viatorko 6.-B taldea bigarren izan da. Zorionak!



ZORIONAK TXAPELDUNEI!

Toki Eder tabernako I. Mus Txapelketa jokatu zen egubakoi-tzean, Roman Lópezen eskutik. Hona hemen irabazleak: Jesus Maria Gorosabel, ezkerrean, eta Juan Iriarte Takolo, eskuman, txapela, trofeoak, diplomak eta 80.000 pezeta jasotzen. Erdian, trofeoak eman zituen Pepe Primoy. 32 bikotek jardun zuten.

TOKI ARGIKOAK TOKI POLITEAN

Ikasurtea amaitu berri duten gaztetxoak ez dira uztailean irteerak egiten dituzten bakarrak. Toki Argi erretiratuen etxeok Arriondas-era, Asturiasera, txangoa egin zuten orain dela bi aste. Ikus dezakezuenetz, oso deialdi arrakastatsua izan zen, bazkide mordoxka animatu zen-eta.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Uztaila Kulturala

Zinea Monterron Parkea
22:30ean • Sarrera doan




Blade Runner **Uztailak 19**
zuz. Ridley Scott (Jatorrizko bertsioa)



Acordes y desacuerdos **Uztailak 26**
zuz. Woody Allen

Antzerkia Seber Altube
22:30ean

Nazioarteko folklore dantza



Girobira **Uztailak 20**
Gaitzerdi Antzerki Taldea



Gran Ballet Argentino **Uztailak 24**
Monterron parkea 22:30
Sarrera: 1.000 pezeta
800 pezeta (Gazte Txartelarekin)



Kirol hauetan guztietan protagonista

Pertsona bakoitzak kirola egitean bizipen desberdinak biltzen ditu. Batzuek lehiatzea dute gustuko, beste batzuek jendea ezagutu eta talde bateko partaide izatea atsegin dute, eta badaude, kirolaren bitartez, adrenalina erre eta sentsazio berriak bizitzea helburu dutenak ere. Ez da erraza kirol guztiak izendatzea, baina urteko sasoi honetan egin daitezkeen hainbat kirol aurkeztuko ditugu, oraindik bizirik gaudela ziurtatzen diguten kirolak, hain zuzen ere.

Besteak beste, eskalada, parapente, piraguismo eta arroila jaitsieraz mintzatuko gara; izan ere, arrasatear askok praktikatzeko dituzte kirol horiek. Uztaila oso hil aproposa da kirolak egiteko, eta hasiera batean oso ezberdinak direla uste badugu ere, guztiek daukate zerbait batera: uneoro natura dugu protagonista.

UR GAINEAN JOLASEAN

Gizakiak aspaldi asmatu zuen ur gainean bidaiatzeko modua, eta lehenengo kanoarekin topo egiteko sei mila urte egin behar dugu atzera. Eufrates-en, erregeak garraiobide hori erabiltzen zuen azken bidaia egiteko, zerura joateko, alegia. Egiptoarrak gora eta behera ibiltzen ziren Nilo ibaian kanoekin. Cristobal Colón Ameriketara

iritsi zenean indigenak piraguetan hurbildu zitzaizkion; halaber, Yucatanen, Chichen Itzá-n, hain zuzen ere, orain dela mila urteko marrazkietan kanoak azaltzen dira. Gaur egun, Euskal Herrian, behintzat, piraguek beste erabilera bat daukate, eta garraiobide hori kirol bilakatu da. Arrasaten ez dago piragua elkarterik, baina hemendik aurrera Urkuluko urtegian piraguan ibiltzeko aukera izango da, hori bai, baldintza batzuk bete beharko dira. Bergara aldean, bestalde, hainbat piraguazale Deba ibaiko uretan murgiltzen dira, batez ere OLA tailerren atzealdean. Kirol hori itsasoan, errekan edo lakue-

tan egin daiteke, baina leku bakoitzerako piragua mota bat dago. Hortaz, piragua bat erostera argi izan behar da non ibiltzeko izango den. Itsasoa ibiltzeko piraguak luzeagoak dira, 4,46 eta bost metro pasatxo bitartean izaten dituzte, eta olatuei hobeto aurre egiteko zapalagoak izaten dira. Erreketakoak, berriz, motzagoak eta estuagoak izaten dira, horrela, lastertasuna handiago izateaz gainera, piragua errazago maneiatzen da. Bena-tako sentsazioak bizi gura dituenak ur-lasterak aukeratzen ditu, baina kasu horretan, ibilbidea goitik behera eza-gutzeaz gainera, beharrezkoa da piraguan oso ondo ibiltzen jakitea.

MAGNESIO APUR BAT ETA...

Askok ez dute ulertzen zer erakargarritasun izan dezakeen horma bat igotzeak, baina geroago eta gazte gehiago animatzen da kirol hori probatu eta praktikatzera. Euskal Herrian oso paraje aproposak ditugu eskalada egiteko, eta arrasatearrok ez dugu oso urrun joan beharrik kirol hori behar bezala egiteko. Negu osoa Uarkapeko boulderrean igaro eta gero, eguraldi onak eskaladaz eta naturaz gozatzeko aukera ematen digu, eta Atxarte, Egin edo Araotzeko harkaitzek hamaika aukera eskaintzen dizkigute. Kirol horretan, hasiera oso gogorra izaten da, egoera fisikoak asko baldintzatzen du-eta eskalada. Hala ere, pixkanaka-pixkana-



Udalatxetik salto eginez gero, sekulako parajeekin gozatzeko aukera izango dugu. Argazkia: Mikel Bergara.

an natura da



Ur-lasterrak jaisteko piraguan oso ondo ibiltzen jakin behar da. Argazkia: Iñaki Etxebeste.

ka joanez gero, hilabete gutxian asko aurreratzen da, eta gogoratu beharra dago helburu bakarra ez dela horma igotzea; izan ere, herritik irten, lagun artean egon eta leku berriak bisi-

tatzeko aukera paregabea ematen digu. Beste aukera on bat Pirinioek eskaintzen dute, eta oporraldi edo asteburu askotan herriko jende asko motxila eta beharrezko materiala

hartu eta, esaterako, Riglos edo Ordesara joaten da, paraje, horma eta bizipen berrien bila. Eskalada egitea ez da merkea, kirol gehienetan moduan materiala garestia da

eta. Horrez gain, hara eta hona ibiltzeko dirua behar da, baina ez dadila aitzakia izan.

HODEI GUZTIEN GAINETIK

Lehenago aipatutako kirolak adrenalina askatzeko aproposak badira, oihal zati batekin lagunduta hegan egitea demasa izan behar da. Parapentearen sorreraz berba egiterako orduan, izen asko azpimarratu beharko genituzke, baina NASAk espazioko kapsulak berreskuratzeko egindako ikerketek bultzada izugarria eman zioten kirol horri. Arrasaten, Icarus delta taldeak kirol hori hurbilagotik bizi izateko aukera eman digu. Euskal Herrian leku apropos asko daude parapentean salto egiteko, baina guk, batez ere, Udaltax eta Kurtzebarrin behe- ra ikusi ditugu hegan egiten. Parapentean ibiltzea uste baino errazagoa baldin bada ere, kirol guztietan moduan pausoz pauso joateaz gainera,



EMAKUMEON TXOKOA

Emakumeei zuzendutako Mekanizatu eta Soldadura ikastaroak.

Ikastaro hauen inskripzio epea zabalik dago, uztailaren 9tik 30a arte.

Mekanizatuen ikastaroak 500 ordu iraungo du.

Soldadura ikastaroak 400 ordu iraungo du.

Izena eman gura duenak udaleko Enplegu Saifera zuzendu behar du bere eskaria.

Komiki ez sexisten IV. lehiaketa Gizarte ez sexista, komiki ez sexistak.

- Gaia librea da.
- Nahi duenak parte hartu ahal izango du.
- Euskaraz zein gaztelaniaz.
- Parte hartzaileak banaka edo binaka (gidoigilea eta marrazkilaria) aurkez daitezke.

Lanak aurkezteko epea: uztailaren 20an, arratsaldeko 14.00etan.

"Gazteen ekimenak" XII. Argazki Lehiaketa. Parte hartzaileak:

- Debagoieneko 13-17 urte bitarteko gazteak
- 18-35 urte bitarteko edozein.

Emakume Sallaren sarri berezia (beste batzuen artean): Emakumezkoen ikuspuntua, errealitatea, mundua hobetoen islatzen duen argazkia: 50.000 pezeta.

Lanak aurkezteko epea: urriaren 11.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■


ezinbestekoa da adituen laguntza. Esan beharrik ez dago Udalatxeko haitzetatik behera salto egiteko, irteera, hegaldia eta lur hartzea bikain menderatu behar direla. Hortaz, probatzeko asmoa duzuenok, lasai egon, hori guztia poliki-poliki ikasten da-eta.

AUKERAN, NEOPRENOAZ

Oporretan, jende askok mendia aukeratzen du hondartza beharrean; izan ere, mendiak lasaitasuna baino askoz gehiago eskaintzen digu. Azken hamarkadan, mendian egin daitezkeen kirolek indar handia hartu dute, eta arroila jaietsiera, rafting edo *hidrospeed* moduko kirolak gaur egun edozein bidai agentzietako eskaintzen artean daude. Debagoienean ez dugu kirol horiekin gozatzeko parajerik, eta horretarako beharrezkoa da Piriñoiotara joatea. Kirol garestiak ez diren arren, jeneralean materiala alokatu egiten da eta monitoreak beharrezkoak izaten dira. Bada kirolak norberaren kontura egiten dituenik

ere, baina kasu gehienetan horrelako ekintzak enpresa txikiek kudeatzen dituzte. Arroila jaietsiera da errekek haitz artean egindako pasabideetatik behera igarotzea; kirol horretan, ur-jauziak rapelatu, horman behera egin, harri artean txirristan jaitsi edo ur putzuetara salto egin behar izaten da. Bestalde, *hidrospeed* eta *rafting* errekan behera egiten diren kirolak dira. *Rafting*ean gomazko txalupa bat erabiltzen da, eta zortzi lagun, arraunez baliatuta, erreka zailtasunak saihesten ahalegintzen dira. *Hidrospeed*ean helburua bera da, baina *boogy* bat erabiltzen da; hau da, bularra plastikozko taula baten gainean jarri eta hegats batzuen laguntzarekin errekan behera jaisten da. Betikotasunetik alde egin gura duzue behingoagatik, behintzat, Benidorm alde batera utzi eta sentsazioz betetako oporrez gozatzeko.

Xabier Urzelai ■



Hiru auzoko jaien batuketaren emaitza



Uztaileko bigarren asteko aste-buruarekin batera Santa Marina auzoko jaiak datoz. Dagoeneko ohitu gara asteburu jakin horretan ospatzen, baina lehen ez zen horrela. 1969. urte arte hiru jai ospatzen zituzten Santa Marina inguruan: Santa Marina-koak eta Kristo Obrero auzokoak (gaur egun kaleak dira). Hala ere, 69. urtean auzo-alkatea (Bixente Azkarate) izendatu zuten hiru auzoendako (San Andres auzoan izendatu zuten herriko lehenengo auzo-alkatea, Pedro Mari Altube, eta bigarrena Santa Marinar). Horrekin batera, jakina, Auzo batzordea eratu zuten, eta auzotar talde hark erabaki zuen ego-kiagoa zela hiru auzoetako jaiak bateratu eta bakarra egitea. Denen artean berba egin, eta uztaileko bigarren asteko aste-buruan ospatuko zituztela adostu zuten. "Festejos del Distri-

to-Polígono 33" izenarekin ezagutzen zituzten orduan herri-tarrek, udalean Santa Marina auzoa "Polígono-Distrito 33" izenarekin agertzen zen-eta. Baina auzoko alkatetza Santa Marinar zegoenez, gaur egun ezagutzen dugun izenak poliki-poliki indarra hartu zuen: Santa Marinarako Jaiak, alegia; eta horrelaxe geratu da.

ANTZERAKOAK

Gauregun moduan, orduan ere egubakoitzean hasten ziren jaiak, baina auzoko egitarauaz gainera, orain ez bezala, herriko erraldoiak ere igotzen ziren auzora. Gauean, berriz, dantzaldia egiten zen. Zapatua, berriz, erretiratuei eta umeei eskainitako eguna izaten zen, baita orain ere; eta domekan bukatzen zen jaia. Hori bai, lehenengo bi urteetan Mondragoeko bandaren bisita izan zuten auzokideek.

EGITARAUA

Egubakoitza

19:00 Bandera jartzea eta jaien hasiera etxafuego eta buruhandiek
23:00 Dantzaldia Preludio taldearekin

Zapatua

10:00 Diana eta buruhandiak
10:30 Pilota finalak Makatzenako pilotalekuan
11:00 Esku-bolo txapelketa
11:30 Trikitilarietako kalejira
13:00 Auzoko erretiratuei omenaldi-meza Mesedeetako Amaren elizan. Gero, erretiratuendako bazkaria
16:30 Umeendako jokoak eta karaokea Agerre plazan
17:00 Esku-bolo txapelketaren finalak
17:30 Lehenengo kategoriako pilota partidak Obenerrekako pilotalekuan
19:00 Doke eta Igel-toka bolatokiaren ondoan
19:30 Bits jaia Obenerrekako pilotalekuan eta "Kojonudoen" dastatzea
23:00 Dantzaldia "Iratxo" taldearekin. Dantza lehiaketa ere egingo da. Eta dantzalekua izango da Makatzenako pilotalekuan Manu "16 Válvulas" DJ ospetsuarekin

Domeka

10:00 Diana eta buruhandiak
11:00 Esku-boloak jokoa guztiendako
11:30 Fanfarre kalejira
12:00 Meza nagusia Mesedeetako Amaren elizan. Umeendako parkea ere egingo da.
14:30 Herri bazkaria
16:00 Umeendako parkea eta esku-bolo jokoa finalak (profesionalak, maila guztiak)
17:00 Fanfarre kalejira
18:30 Marsel magoa Agerre plazan
20:00 Dantzaldia Miramar orkestrarekin
24:00 Jaien amaiera. Azken traka.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tñoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

JONATHAN PEREZ (ATLETA)

«Ordua zen entrenamenduan erakutsitakoa txapelketan erakusteko»

Hamabost urterekin atletismoan hasi zen, baina hainbat modalitate probatu eta gero pertikarekin saiatzeko aholkatu zion entrenatzaileak. Urte hartan 3,20 metroko jauzia egin zuen, eta ordutik hona marka hobetuz joan da. Aurreko asteburuan, 4,60 metroko jauzia egin zuen Mendizorrotzan, eta promes mailan urrea eskuratu zuen.

- Kirol honetan aurrera egiteko beharrezkoa zen Real Sociedad taldearekin fitxatzea?

Bai, azken batean herrian dauzlagun baliabideak ez dira bate-re onak, eta horrez gain nahiko kirol garestia da. Azken batean, pertikekin egiten dugu lan, eta markak hobetzen joateko pertika aldatu egin behar da. Indarra eta esperientzia hartzen diren neurrian pertika zaharkituta gelditzen da, eta berria erosi behar da. Pertika batek 130.000 pezeta balio ditzake, hortaz, hemen geneukan aurrekontuarekin ezin gauza handirik egin. Real Sociedad taldeak bi pertika erosi dizkit aurten, bata 4,60 metro luze da eta bestea 4,70. Luze-za ezberdina izateaz gain, gogortasuna ere ezberdina da. Argi dago kirol honetan aurrera egiteko dirua behar dela.

- Denboraldi honetarako zeintzuk ziren zure helburuak?

Hasiera batean nire helburua zen 4,40 metroko jauzia egitea, eta erraz saltatu nuela ikusterakoan salto luzeagoa egitea pentsatu nuen. Realak 4,60 metro egiteko eskatu zidan, eta hori ere bete dut, baina hortik aurrera egiteko zailtasunak izan ditut. Entrenamenduetan ondo ibiltzen nin-

tzen, baina txapelketetan gauzak ez ziren nahi bezala aterara. Azkenean pozik egoteko emaitzak izan ditut, pista zaba-lean 4,41etik 4,60ra iritsi naiz-eta. Oro har, denboraldi ona izan da.

- Oraingo asteburuan Katalunian izango zara, Espainiako Txapelketan, baina tirabiraren bat edo beste izan da, ala?

Bai, aurreko asteburuan hase-rretzeko aukera izan nuen; izan ere, urrea lortzen zuenak Katalunian jokatuko den Espainiako Txapelketara joateko txartela eskuratuko zuen. Entrenatzaileak baiezkoa eman eta Euskadiko hautatzaileak esan zidan ni joango nintzela. Denek zorionak eman eta gero, nire ordez atleta bizkaitar bat eraman behar zutela esan zidaten, hortaz, atera kontuak. Azkenean, martitzen gauean deitu zidaten joateko prest nengoen galdetzeko, eta nik baietz esan nien; hortaz, Katalunian izango naiz.

- Gomendatuko zenieke kirol hau gazte arrasatearrei?

Bai, jakina. Oso kirol polita da, eta kirol hori praktikatzen hasteko, Arrasaten ez dago arazorik. Gainera, nirekin oso ondo portatu den jende asko



"Asko gustatuko litzaidake Arrasateko gazteei kirol hau erakustea"

dago, bereziki, Arrasateko atletismo taldeko entrena-tzailea, Fernando Zufiria. Astero-astero Donostiara joan behar izaten naiz, eta berak eramaten nau. Asko daukat

eskertzeko. Niri ere gustatuko litzaidake jende gazteari kirol hau erakustea; hortaz, interesa duenak irailean Iturripera joatea baino ez dauka.

Gastuak eta zorrak txikitu

Mondra futbol taldeak batzar orokorra egin zuen aurreko egubakoitzean, eta hainbat gai eztabaidatu zituzten, baina, batez ere, egoera ekonomikoa izan zen berbagai. Mondrako zuzendaritzak, zergak txikitzeko asmoz, hainbat neurri hartu zituen orain hiru urte, eta badirudi neurri horiek eragina izan dutela. Aurtén, etxeko taldeak 13,5 milioiko aurrekontua izan du, eta denboraldia 1.117.460 pezetako superabitarekin amaitu dute. Jose Luis Ezkurrak eta Patxi Iartzak argi utzi zuten superabita ez dela lortu diru-sarrerera handiak egin direlako, klubaren gastuak asko murriztu direlako baino. Balantze positibo horrekin, 7,6 milioiko zorra 6,5 milioira jaitsi da, eta Mondra taldeko ordezkarién esanetan, oraindik zorra dagoen arren, dagoeneko kontrol-




pean da. Halaber, batzar orokorrean Mondrako futbol taldeek egin duten lanaz mintzatu ziren, eta harrobiko lana azpimarratzekoa izan bada ere, talde nagusiak espero zena baino maila eskasagoa erakutsi du. Horrez gain, azpimarratzekoa izan da etxeko taldeak egin dituen hainbat ekintza: alde batetik, eskola-kirolarekin eginitako lana, eta, bestetik, Arrasateko futbol taldeak antola-

tutako hainbat txapelketa, Arrasate Hiria Txapelketa edo Lopez Rekarte areto futbol txapelketa, besteak beste.

DATORREN URTERAKO ALDAKETAK

Datorren denboraldirako hainbat aldaketa izango badira ere, bazkide kopuruak eta sarrerén prezioak berdin jarraituko dute; taldeetako entrenatzaileei dagokienez, lehen erregiona-

la Raul Leibak zuzenduko du, eta Felix Jiménezek egingo ditu ordezkari lanak; Arkauz, Koldo, Juan eta Anerrek taldea utziko dute; Arkaitz Gaintzarain izango da Mondra taldeko atezaina, aurtén moduan. Horrez gain, Jon Alkorta, Zibogevic eta Garmendia gazte mailako jokalariek lehen taldera igoko dira. Gainerako taldeei dagokienez, ohorezko gazte mailan Zubia eta Nicolas González izango dira entrenatzaileak. Bigarren mailako gazteak Igor Gordobilek zuzenduko ditu. Ohorezko kadeteetan Zabaleta eta Azkargorta arituko dira taldea zuzentzen eta bigarren mailako kadeteetan, bestalde, Zaitegi eta Okon izango ditugu entrenatzaile lanetan. Gainera, taldeak atezain-entrenatzailea izango du: Iban Madariaga, hain zuzen ere.



Mikel Lizarralde

Lizarralde Kirolak-en Tour lehiaketa mundiala

Mendi bizikleta bat irabazi nahi baduzu, azkar ibili!!

Tour-eko lehenengo hiru sailkatuak eta mendiko sailkapeneko irabazlea zeintzuk izango diren badakizu, beheko kupoi hau bete eta uztailearen 23a baino lehen Arrasate Press-era bidali (Otalora Lizentziatua, 31).

Gainera, mailotak ere eskura ditzakezu. Jkus Arrasate Jrratiaren orria.

Jrabazlearen izen-abizenak irailaren 7an kaleratuko ditugu Arrasate Pressen. Aci egon!!

Datu pertsonalak:

Jzen-abizenak:

Telefonoa:

Helbidea:

Herria:

Tour lehiaketa

Sailkapen orokorreko lehen hirurak:

1.-

2.-

3.-

Mendiko irabazlea:

1.-



Canas Esteban taldea Gazteiz Cup-en


Arrasateko Canas Esteban talde gaztea Gasteiz Cup-a jokatzeke sailkatu da, beste behin, eta arrasatearrak B multzoan daude. Txapelketa astelehenan hasi zen, eta zapatuan amaituko da, final handiarekin. Finalera iristeko etxeko

taldeak Coras, Royal Gosselles sport, Virgen niña eta Adurtza taldeak gainditzeaz gain, final-laurdenak eta final-lerdiak gainditu beharko dituzte. Etxeko taldea hauek osatzen dute: zutik Adrian, Andoni, Arruti, Alex, Lander eta

Asier; makurtuta Iñaki, Jon, Mikel, Xabier, Gorka eta Aitor. Arrasateko talde gaztea ilusio handiarekin joan da txapelketara, eta finalera iristea sekulakoa izango litzateke; izan ere, txapelketa nazioarte mailakoa da.

Txirrindularitza

Aurreko zapatuan, gazte mailako txirrindulariek lasterketa izan zuten Mendaron. 92 kilometroko ibilbidea egiteko asmoz 81 lasterkerik parte hartu zuten, baina batzuek ez zuten ibilbidea bete. Fagor taldeko Aitor Elortza eta Raul Blázquez gazteek lan bikaina egin zuten, eta azkeneko ihesaldian izan ziren. Azkeneko kilometroetan, Ekaitz Eizagirre Swiss-Flex taldeko txirrindularia ihes egin eta bakarrik heldu zen helmugara. Fagor taldeko Aitor Elortza izan zen bigarren, eta Raul Blázquez, talde bereko txirrindularia, bosgarren. Hurrengo lasterketa bihar, zapatua, izango da Aztirian. Espero dezagun zapatuko lasterketan etxeko txirrindulariek, aurreko lasterketetan moduan, emaitzak onak lortzea.



WERU
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain


PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

'Blade Runner' filmaren jatorrizko bertsioa ikusgai

Uztailaren 19an, eguena, zientzia-fikziozko *Blade Runner* film klasikoa ikusteko aukera izango dugu. Hainbat ezaugarri egiten dute emanaldi hori erakargarri: alde batetik, ingelesez emango da, gaztelaniazko azpitituluekin; eta, bestetik, are garrantzitsuagoa dena, jendaurrean aurkeztu gabeko bertsioa izango da. Monterron parkean izango da saioa, 22:30ean, udalak antolatutako zinema emanaldien barne.

AMAIERA DESBERDINA

Ridley Scott zuzendariak filmatu zuen *Blade Runner*, 1982an. Etorkizun ilunean dago girotua. Erretiratutako polizia bati (Harrison Ford-ek antzeztutako rola) egiteko arriskutsua ematen diote: modu artifizialean sortutako gizaki antzeko batzuk harrapatu eta suntsitzea, hain zuzen ere. Ridley Scott-ek aukeratutako bukaera ez zitzairen gustatu ekoizleei, ez eta lehenengo ikusleei ere; orduan, produkzio-etxeak bukaera aldatzera behartu zuen zuzen-



daria. 1991n, baina, kasualitatez, Scott-en bertsioaren zintak aurkitu zituzten eta argitaratu egin zituzten. Ehun eta hamasei minutu eta sei segundo irauten du, eta, amaieraz gainera, beste hainbat gauza ere 1982an aurkeztutako bertsioetik desberdin agertzen dira. Scott-en *Blade Runner* orain arte ikusi izan duguna baino

ilunagoa dela esan izan da, baina baita interesgarriagoa ere.

IRAKURKETAK

Sinboloz betetako filma da *Blade Runner*, eta hamaika irakurketa desberdini bide ematen dio. Klonak eta gene erabilerak boladan dago, eta gai horren ganean, besteak beste, zerpentsatu ematen du film horrek.

Mondragoek badu jazz taldea

Arrasate Musikalek jazz taldea du: *Arrasate Musikal Big Band* du izena, eta joan den astea ezkerre jendeak badauka talde horren berri; izan ere, joan den egubakoitzean egin zuen jendaurreko estreinaldia *Arrasate Musikal Big Band*-ek.

HAMASEI PIEZA

Mondragon hotelean izan zen emanaldia, 22:00ak aldera, eta, ordu erdi inguruko saio hartan, jazz denetarikoi doinuak bereganatu eta egokitzeko gauza dela erakutsi zuten musikariek.

Guztira, hamasei pieza eskaini zituzten. Jazzeko klasikoa gogoratu zituzten, Duke Ellington kasu; baina beste estilo batzuetako doinuen moldaketak ere egin zituzten. Adibidez, latindar musika, rock and rolla edo film ezagunen soinu bandak. Funk-souleko musika ere jo zuten.

Jose Ramon Elkorro da *Arrasate Musikal Big Band*-eko zuzendaria. Hamabost bat musikaririk eta bakarlari batek osatzen dute taldea.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Inoiz baino boluntario gehiago Arrosarako

Markak hautsi ditu aurten Euskal Herria Zuzenean (EHZ) musika jaialdira laguntzaile moduan joateko parte hartzeak. Txatxilipurdik bosgarren urtez egin du deialdia jaialdi horretara lan egitera joateko, eta 26 gaztek erantzun dute, iaz baino 20 gehiagok, hain zuzen ere. Arrosan, Nafarroa Beherean, igaro zituzten guztiek hiru egun, ekainaren 29tik uztailaren 1a arte.

Boluntario kopurua horrenbeste igo izanak poz handia eman dio Txatxilipurdi elkarteari; baina, horrez gain, beste ondorio bat ere azpimarratu dute: "Ipar Eus-



Hona hemen iaz Txatxilipurdirekin joan ziren boluntarioak

kal Herriarekin ez dugu lankidetzeta handirik, eta horretan Arrasate eredu da", diote elkarteko arduradunek. Hego Euskal Herrian Txatxilipurdik soilik antolatu du laguntza kanpaina EHZrako.

Gazte arrasatearrek jendearekin harremana daukaten lanak egin behar izan dituzte, jendeak euskara entzun zezan. Txosnetan eta aparkalekuak antolatzen jardun dute, batez ere.

Putz-en zenbaki bikoitza kalean

Kalean da Putz bihilabetekariaren azken zenbakia. Ohi baino mardulago dator oraingoan; izan ere, zenbaki bikoitza da: 9.a eta 10.a, hain justu ere, baina ohiko salneurrian. 100 orri ditu. Liburu dendetan eta tabernetan erosi ahal izango duzue, 450 pezetan.

ONDO JANTZITA

Edukiz ondo jantzita dator Putz. Hainbat elkarrizketa daude: Evaristo; Quino, Mafalda pertsonaiaren egilea; Juan Luis Zabala idazle eta kazetaria; eta Karmelo C. Iribarren poeta, besteak beste. Gastronomía atalak ez du hutsik egin, ezta ohiko ipuintxo erotikoek ere. Apur bat serioago jartzen bagara, tatuajeen gainean erreportajea, Aramaioko elezahar bat, zenbait komiki eta poesiak ere aurkituko ditugu, baita gaur egungo gaien kritika ere, *Hasiberriak* fenomeno kasu.

Arrasatearrak eta aretxabaletarrak dira Putz-en arduradunak, eta Arrasaten dute egoitza.



200.000 pezeta itzulpen onenari

AED elkarteak Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren XV. Sariaketa antolatu berri du, Kutxaren, Arrasateko Udalaren, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaur-laritzaren laguntzarekin. Honako helburuak bete gura dira: batetik, Jokin Zaitegi idazle arrasatearraren lanarekin jarraitzeko, sarritan esku-ratzeko gaitza den zenbait informazio euskaldunon esku ipintzea; bestetik, itzulpen-gintza indartzea. Irabazleak 1.250 euro (200.000 pezeta inguru) jasoko ditu saritan, eta bigarrenak, 625 euro (100.000 pezeta inguru).

ENERGIA ITURRIAK

Urtero, itzulpenarako gaia aurrez emana dago. Aurtengoa hauxe izango da: energia iturriak XXI. mendean. Edozein hizkuntzatatik itzulitako testuak aurkez daitezke; hori bai, lehenengo aldiz 1998 eta 2001 urteen artean argitaratutako jatorrizko testuak bakarrik erabil daitezke; itzulpen lanak argitaratu barikoa izan behar du eta gutxienez 15 orri eta gehienez 30 hartu behar du; lanak hiru kopian aurkeztu behar dira, eta jatorrizko testua atxiki behar zaio itzulpenari.

Lema bidez aurkeztu behar dira lan guztiak. Urriaren 31a baino lehen honako helbidera bidali behar dituzue: AED elkarte; Jokin Zaitegi sariketa; Pablo Uranga kalea, 4 behea; 20.500 Arrasate.

IRIZPIDEAK

Itzulpena zuzena den, euskara egoki eta dotorean idatzia dagoen, gaia gaur eguneko den, testuak etorkizunerako balio ote duen, eta testuak interesa duen eta baliogarria den hartuko ditu kontuan epaimahaiak irabazleak hautatze-ko.

LAKET
Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis
Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

beinke

TTUKUN
Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

**ARRASATE
HOTELA**
Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

GAITZERDI (ANTZERKI TALDEA)

«Gaur egungo gizarteari kritika mingotsa da Girobira»

Talde beteteranoa da Gaitzerdi. Bilbon eratu zuten, 1988an, Euskal Herriko kulturaren "hutsunea" igarri zuten aktore gazte batzuek. Ordudanik bide luzea egin dute, eta bide horrek Arrasateraino ekarriko ditu uztaillaren 20an, egubakoitza, *Girobira* izeneko ikuskizunarekin.

— Zein helbururekin sortu zenuten Gaitzerdi?

— Antzerkia egiteko modu berriak ikertu eta plazaratu gura genituen. Horregatik, askotariko ikuskizunak egiten genituen hasieran. Baina beste helburu bat konpainia finko bilakatzea zen, eta lehenengo urteetan saiatu ginen jendeak konpromisoa har zedin. Taldea behin betiko finkatu zenean, 1998an, profesionalizatu egin zen; Fermin Muguruza eta Dut taldearen ikuskizunarekin lan egin genuen, besteak beste. Orain, zazpi lagunek dihardugu.

— Zer da *Girobira*?

— 1998an egin genuen antzeppen lan hori, eta Bilboko Aste Nagusian estreinatu genuen. Gaur egungo gizarteari kritika mingotsa da *Girobira*, presaka eta korrika bizi den gizarte honi egiten diogun kritika, hain justu ere. Antzezlanak progresioa erakusten du: hasi, modu normal eta xumean hasten da, baina gaiek aurrera egin ahala, erritmoa geroago eta arinagoa da, eta bukaera zeharo kaotikoa du. Hamaika jaialdi eta lehiaketatan aurkeztu dugu *Girobira*, bai Euskal Herrian bai kanpoan ere: Lekeitio, Lasarte, Donostia, Getafe, Viladecans, Tarrega, Granada, Malaga, Suitza... Iaz, New Yorkeko Fringe Jaialdian, koreografia onenaren saria irabazi genuen lan horrekin. Hain harrera ona izan dugunez, beste urtebetez-edo horrekin jarraituko dugu. Hala ere, arrakasta handiagoa izan dugu kanpoan Euskal Herrian baino.

— Zergatik gertatu da hori, zuen



ustez?

— Kanpoan jendeak ikuspegi zabalagoa du, antzerki gehiago ikusi duelako, eta abangoardiako antzerkia gehiago hedatu da. Euskal Herrian ere harrera ona izan dugu, baina hemen tradizionalistagoak gara eta kosta egiten zaigu gauza berriak onartzea.

— Zein da *Girobira* antzezlanaren egitura formala?

— Bederatzi gai musikaletan banatzen da, eta koreografia bana eskaintzen dute aktoreek gai bakoitzean. Hori dela eta, aktorearen lana ikuspegi guztietatik ikus dezakegu: esaterako, gai batzuk oso dramatikoak dira; beste batzuetan erri-tualak agertzen dira, batez ere ekialdekoak; adierazpen fisikoa ere badago... Antzezleek elementuekin -sua, ura...- eta irudimenarekin jolasten dute.

— Inprobisazioak tarte handia du *Girobiran*?

— Hasieran bazuen, bai, baina orain ez hainbeste. Denborak aurrera egin aha-

la, aktoreak adierazi gura zutena zehaztuz joan dira, eta orain hobeto dakite zer erakutsi gura duten. Askoz ere kontrolatuagoak daude antzeppenaren alderdi guztiak, nahiz eta oxigenoak, irudimenak, bere lekua izaten jarraitzen duen.

— Beti kanpoko antzerkia lantzen duzue?

— Ez. Batez ere konpainiaren lehen urteetan askotariko antzerkia lantzen genuenez, oso antzezlan desberdinak egitera ohitu ginen: kalekoak nahiz aretokoak, umeendakoak nahiz helduendakoak... Antzerki konprometitua ere egiten genuen. 1994tik aurrera, kale ikuskizun handiak egin izan ditugu. Baina urrian beste lan bat estreinatuko dugu, eta hori aretorako lana izango da.

Beste berritasun bat ere ekarriko du: orain arte egin ditugun antzezlan guztietan, bai testua baita adierazpen fisikoa ere guk geuk sortzen genituen, batez ere taldearen zuzendariak eta sortzaileak, Kepa Ibarak. Baina urrian aurkeztuko dugun antzezlana idazle italiar batena da.

« Antzeslana progresioan doa: xume-xume hasten da eta modu kaotikoan bukatu »



Jesus Mari Ibabe Monte tabernakue

Halabiharrez ikasi biher izen euen aramaixoar honek tabernako lanbidie, eta ordutik hona taberna baten baiño gehixagutan egin dau lan. Tabernako lana itxi biherko baleu, eskuekin abille danez, gauzak konponketan ibilttie gustauko litxakixo; Jesusek esaten dauen moduen, "txapuzak" egitten.

-Esaidazu guzur bat.

Oso altue eta potolue naz.

-Amets bat.

Trankil bizitzie.

-Amesgaizto bat.

Ez jat bat be okurriduten.

-Egin dozun azken biajie.

Picos de Europa, Fuente De-ra.

-Txartel horixe, zeñiei?

Politikuei.

-Eta gorrixie?

Hori politikuei be.

-Film bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Ghost/ Amar la tierra/ U2.

-Gustora egitten dozu zeure lana?

Bai.

-Animalixe izetekotan, zein?

Basahuntze.

-Drogak legalizauko zittukie?

Ez dakit, ba. Zalantzie daukot.

-Eta prostituziñue?

Zergaittik ez?

-Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue, duda barik.

-Etxeko zapatillek ala zapatak?

Zapatillek.

-Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Monterron.

-Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

-Bizio bat?

Tabakue.

-Ze deitoxozu *Arrasate Press Goienkaria* barruen sartziari?

Ondo dago.

-Ze gehittuko zeikixo *Arrasate Presse*? Eta ze kenduko zeikixo?

Ez dot astirik eukitten irakurteko, eta errepasotxo bat baiño ez dot egitten; hortaz, ezin neike esan gauza haundirik.

-Ze mendi gustetan jatzu?

Anboto.

-Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?


Ez nitzake hiri batera juengo.

-Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Asko dagoz.

-Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Ez daukot iñor be buruen.



"Lehendakarixe izengo banitz, gaztien etorkizunagaittik egingo neuke lan" "

-Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Je, je, hori ez da sekula be pasauko; hortaz, alperrik gabitz horretan pentsetan.

-Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Quiere ser millonario? gustetan jat. Irratixe ez jat gustetan.

-Zertan gastauko zeunke dirue?

Mendixen etxetxo bat egingo neuke.

-Jasaten ez dozun zerbait.

Mandamasak.

-Tabernetara jueten zarenien ze eskaketan dozu?

Zerbait alkohol barik, kafe jeneralien.

-Jokatu dozun porran?

Bai, bai.

-Mondragoeko jai bat?

Santamasak.

-Lana, egunez ala gabaz?

Egunez.

'Arrasateko Errepublika Teokratikoa' aztergai

Argitaratu berri da "Arrasateko Errepublika Teokratikoa" izeneko liburua, eta astelehenean, goizeko 11:30etik aurrera, liburua-ren nondik norakoak kontatuko dizkizuegu Arrasate Irratian.

Liburua Ramon Ugaldek idatzi du, eta kooperatibismoa budismoarekin eta lamaismoarekin parekatzen du. Idazleak dio antzekotasunak daudela bataren eta besteen artean. Bestetik, herriko beste hainbat alorren gainean iritzia ematen du. Esaterako, hezkuntza edo kulturari buruz.



Sariak

Udako kantuekin osatutako diskoa eskuratu gura baduzu, parte hartu Jai Dagin irratia-irratia. Haika Aizpurua eskoriatzarrak gidatzen du musika saioa, eta bertan parte hartuz gero, diskoa eskura daiteke.

Izen-deiturak:
Tel.:

Bidalari gurea: Arrasate Press, Otalora 31
edo deitu Arrasate Irratia: 943 71 17 31.

Naiara Etxeberria "Annette"

Martitzenean, hilak 17, goizeko 10:30ean, *Hasiberriak* telesaileko "Annett"ekin berba egingo dugu. Gure ibarra ondo ezagutzen du Naiara Etxeberria, Oñatin bi urtez ikasten jardun du-eta. Arrasate oso gogoko du, eta herriko irratiara etortzeko gonbita egin diogu.



Maillot berdea

Gaur bertan maillot zuria eman dugu, eta datorren egubakoitzean egingo dugun zozketan maillot berdea zozkatuko dugu. Hortaz, astean heltzen diren kupoien artean bat hartu eta hori izango da maillot berdearen jabea.

Venezuelara bidaia

Edurne Uribesalgo eskoriatzarrarekin eta Nerea Ibarbia eibartarrarekin Venezuela bisitatuko dugu astelehenean. Goizeko 10:30ak aldera kontatuko digute Venezuelara egin zuten bidaia.

GORKA

ILEAPAINDEGIA

ORDUTEGIA:
Astelehenean itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:00

SOLARIUMA
10 saio = 6.000 pezeta

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Gaur egun, herri askotako jaie-tan omenaldia egiten zaie erretiratuei, eta badirudi aspaldiko ohitura dela, baina ez da horrela; ez, behintzat, herriko auzoetan. 1969. urtean ospatu zuten lehenen-

go Jubilatuen Eguna, eta Santa Marina auzoan izan zen, auzoko batzordeak asmatu eta bultzatuta. Gero, San Andres auzoan gauza bera egin zuten eta, hala, ohitura herri osoan hedatuz joan zen. Hain justu, ordukoa da oraingo asteko argazki zaharra. Ikusten denez,

gainera, Santa Marina auzoko emakume zaharrenari saria ematen ari dira. Fertxu Aranburu herriko alkateordea da saria ematen ari dena, eta emakumea, berriz, Paunero.

Gainerakoak, ezkerretik hasita, hauexek dira: Bixente Azkarate (auzo-alkatea), irri-

barretsu dagoena Segundo Mena da, haren ondokoa Joaquin Muñoz eta mutikotxo, berriz, semea, Joaquinito Muñoz. Azkeneko gizonetako ez dakigu zein den.

Argazkia eta berriemailea:
Bixente Azkarate.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



harategia

Jose Ramón Otamendi

19:00etatik
21:00etara

pintxo-eguna
larunbata-14
arrasate



kajoi-taberna

